

Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Osteguna, 1992ko abenduak 24 / II. urtea / 56. zenbakia

Berrogei urte lurraren sustraian

Duela 40 urte hasi zen Nafarroan kobazulo eta leizeen azterketa: espeleologia, hain zuzen. Hasierako sator haiek sokazko eskalak, eskuz egindako lanparak, oihalezko jantziak eta ausardi handia beste materialik ez zuten, eta azterketak azalekoak ziren, inoiz ez baitziren pasa 50 metrotik. Ondoren etorri ziren Larrako espedizioak, aurrerapauso teknikoak, material hobeak, baina lurraren sustraian bide horretan batzuk gelditu ziren. Joan den igandean omenaldia egin zieten Basauran (Lokitz) horietako hiru: Julian Larunbe, Felix Aramendia eta Felix Ruiz de Añkaute. Nafarroan aitzindari izandako hauek, ustekabea harapatuko zuten, hain segur, bide berriak irekitzeko egun petardoak erabiltzen direla jakingo balute. Sustraietarainoko aldaketak.



Zubian barna



BINGEN AMADOZ

Aupa Olentzero! Heldu zara aurten ere. Zure esperoan zuden aspaldi honetan Euskal Herriko neska eta mutikoak, gaur zure inguruan algaraka, pozaren pozaz darabilzkizun txiki guzti horiek.

Besteok, haurtzarotik geroz eta gehiago urruntzen ari garenek nahi-ko genuke ere egun batez behintzat txikiak eta inozo bihurtu, mendian barna egiten dituzun ibilera horietan sinestu, bihar goizean zapata garbitu berriaren ondoan zeozer aurkitu ahal izateko.

Helduontzako berriz arras ostalji-koak dira abenduko ospakizun hauek. Haurtzaroko gabonetan etzegen nostalgiarik. Otorduan etzen mahai-aldean inor falta. Egia da gure nagusiak ere nostalgiaz mintzatzen zirela aurreko denboretan. Elur-egunak omen ziren ordukoak, txiroago baina... xagoak garai bateko amatxien afa-riak. Orain nik berriz aitaren kantuak gogoratzen ditut eta gabon gauean, hitzez hitz datozkit burura.

Emigrazio garaiko gabonak izan ziren nire nagusientzat nostalgikoenak. Hizkuntza eta ohitura arrotzak genituen inguruan eta guk, haurrak izanik haiek baino errextasun gehiago gureak egiteko.

Halere Eguberri arbolak etzigan gauza handirik esaten eta gurasoei atzerriko sinboloz ezezagun hark handiagotzen zien tristezia. Orduantxe ezagutu nuen nik sekulan izan dudan jaiotzarik politena, aitareren eskuz egina.

Txotxak eta buztina nahiko izan ziren gureari eusteko. Hantxe ikusi nituen pixkanaka pixkanaka sortzen porteleko irudiak, baita erregeak bere gamelueta, artzaiak eta erreka-ko garbitzailea, errota, putzu eta ahate- txoak. Denei eman zien itxura gure aita horretarako zeukan abileziak baliaturik. Diru gutxiarekin izan ginen zoriontsu eta gerotzik etorri ziren Eguberriaren, benetako irudiak erosteko aukera izan bagenuen ere, etzen etxean horren edertasun handirik izan Eguberri garaian.

Jakina da jostailurik garestienek ez dutela zergatik izan behar haurra- ren gustokoena. Beharrik. Bestelaz gutxi batzuren izanen litzateke zoriona.

Edozein modutan garbi ikusten dut egun etxeko txikientzako di- rela Eguberri-jaiak. Gauzak horrela, izan gaitezen denok haur, tamaina ez bada, buruz gutxienez, festatik goza- mena ateratzeko.

Horra, horra gure Olentzero!

Barnean

OLENTZEROA



Lesaka eta Iruñean dauka tradizio handiena / III

HERRI KIROLA



Joxelu Retegi izendatu dute presidente berri / VIII

Gure aukerak

ERAKUSKETAK



'Euskararen iraupena Nafarroako gaztelaren' izeneko erakusketa ikusgai dago Garesko udaltxearen erakusketa aretoan. Bertan, euskarak nafar herri erdaldunetako gaztelaren utzi dituen aztarnak aurkezten dira, atal desberdinetan banaturik. Paneletan antolatuta dute, eta panel bakoitzean gai bat agertzen da. Erakusketa hilaren 27a arte iraungo du.

Tafallako Argazki Zaharren erakusketa ikusgai dago datorren urteko urtarrilaren 10a arte, bertako Kultur Patronatoak antolatutik. Argazkiak herriko erakusketa aretoan ikus daitezke.

Felix Llorente Zuazuk erakusketa zabalduko du Tafallan datorren astelehenetan, abenduak 28. Erakusketa bixiak ikus daitezke, mota guztietakoak, eta bertako Kultur Patronatoak antolatuta du. Datorren urteko urtarrilaren 9a arte egonen da zabalik.

IKASTAROA



Fondoko eski ikastaroak egin daitezke Aralarren abenduaren 1etik martxoaren 28a bitartean, Larraungo udalak antolatutik. Ordutegia 9.30etik 12.30etara da. Bi modalitate daude, 'Aste Zuria' eskola-koentzat, 4.800 pezetatan, eta 'Bi asteburu' helduentzat, materialekin 6.700 pezetatan eta mate-

Nafarroan gatzak garrantzia handia izan du behialan, eta horri paratzen zitzaizkion zerrek gatzak eta liskarra franko eragin dituzte urteetan. Nafarroan hiru dira gatzaren inguruan industria sortu duten herriak: Ibargoiti-Getze, Galar-Getze, eta Jaitz, Gesalaten.

Berta ikus daitezkeen gatzak urtu du euriak, eta getzaletan bildu eta euria lurruntzerakoan biltzen da. Horiatariko asko komunalak dira, eta sailka ematen zaizkio bizilagunei. Bertan amezti eta zumaldiak erruz zeuden garai batean, baina nekazaritzak berarekin eraman du horietariko asko.

Gure ibilbidea getzaletatik ateratzen da, eta harrobiatarako joaten den bidea hartuko dugu. Ibai Saladoa uzten dugu alde batera, eta El Puente baina, El Ristro eta Mendartiaren arteko malda igo beharra dago. Hortik baina Iturzabaleraino heltzen

rialik gabe 4.800etan. Izena eman daiteke Lekunberriko Kirol Bulegoan.

ANTZERKIA




Teatro de Medianoche antzerki taldeak txontxongiloen obra bat eskainiko du datorren astelehenetan, abenduak 28, Tafallako Kultur Etxean. 'Que bosque tan raro' izeneko lana antzeztuko dute, arratsaldeko 6etan

bertako Kultur Patronatoak eta Tafallako udalak antolatutik. Asteartean, berriz, pailazoak aritako dira, Popi Zarratrako taldearekin, hori ere, arratsaldeko 6etan.

Retablo de Figurillas taldeak txontxongiloen lanak aurkeztuko ditu datorren astelehenetan, abenduak 30, Tafallako Kultur Etxean. 'La ratita presumida' eta 'El carnaval de los animales' izeneko obrak eskaini-

Ibilbide gazia



gara, eta gurutzean ezkerreko bidea hartzen dugu. Soro eta behialako basoetan zehar, Urretara heltzen gara, eta horezkeraldeen ateratzen den bidetik, Lanbarre-

raino helduko gara, atera garen lekuraino.

Zapote mikatza, baina, ez zaizu geldituko, giroan gozotasunarik izan ez arren.

ko ditu. Emanaldia arratsaldeko 6etan izanen da.

'Circus-tancies' izeneko antzezlan eskainiko du larunbat honetan, abenduak 26, Gironako Pettit Circ De Carrer taldeak. Lan honetan pailazo baten gorabeherak kontatzen dira, eta Iruñeko udalak eguberrietarako prestatu duen ekitaldien barruan dago, Haur Antzerkiaren gaiari buruzkoa. Obrak Gaiarre antzokian izanen dira, eta sarrerek 200 pe-

zeta aretoko besaulkian eta 100 pezetako palko eta anfiteatroan balioko dute.

'Desioen Pontxea' izenburuko antzezlan eskainiko du igande honetan, abenduak 27, Gipuzkoako Bederen Bat taldea, Iruñeko udalak antolatutako zikloaren barruan. Emanaldia Gaiarre Antzokian izanen da.

'Pello eta Otso Grisa' izeneko obra antzeztuko du Madrilgo Puxika Gorria taldeak datorren astelehenetan, abenduak 28, Iruñeko Gaiarre Antzokian. Lan honetan mutiko baten abenturak kontatzen dira, otso batekin gertatzen zaizkionak hain zuzen.

MUSIKA



Su Ta Gar eta EH Sukarra musika taldeek kontzertua eskainiko dute larunbat honetan, abenduak 26, Lakuntzako Ilargi dantzalekuan. Ohizkoa den bezala, gabonetan urtero kontzertua eskaintzen dute Ilargin, eta aurtengoa gaueko 11etan hasiko da.

EH Sukarra eta Txantxaka musika taldeak arituko dira bihar, abenduak 25, Garesko dantzalekuan. Kontzertua goizaldeko 1etan hasiko da.

Iruñeko Orfeoia kontzertua emango du igandeetan, abenduak 27, Olivako Monastegian, Nafar Ateneoak antolatutik. Emanaldia arratsaldeko 5.30etan izanen da, eta Jose Antonio Huarte Azparraren izango da zuzendaria.

ADI !

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Ostegunero, arratsaldeko 4etan, 30 **seme-alaba Nafarroako**. Elkarrizketak.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Asteazken zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.


ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.

ERRAN DUTE

ASTEKO PERTSONAIAK

J. A. Perez Sola



Tuterako alkatea

Pedro Subijana



Sukaldaria

Patxi Eugi



Pilotaria

Realak izugarritzko taldea izango du luze gabe».

Eugenio Bustingorri
Osasunako jokalaria

«Iruñeak, hiri bezala, ez-tanda egin du, eta inork ez daki non hasi eta non amaitzen den».

Pedro Manterola
Pintorea

«Ezinezkoa da etxebizitza legea bete eta gastoa murriztea».

Ricardo de Leon
Kontseilaria

«Nafar gizartea garatu da kulturalki, eta gauza handiak ekarri behar dira arreta pizteko».

Javier Zubiaur
Vianako Printzearen zuzendaria

Tuterako alderdi sozialista hautsi zen ofizialki pasa den astelehenetan, aurretik zeharo hondatuta baldin bazegoen ere, Bertan zeuden afiliatu guztiak alderditik kanpo gelditu dira eta Javier Otano Parlamentuko presidentek hartuko du afiliatu berriak erakartzeko ardura. Krisia azken udal hauteskundeetatik dator, Jose Antonio Perez Sola alkatea eta Javier Labarga zereñan bigarren zegoenaren arteko liskarren ondorioz. Auzi guzti honetan Perez Solari egotzi diote askok errua. Orain Javier Otano Parlamentuko presidentek du alderdia berritzeko lana.

Eta Argiñanoren ondotik, Subijana etorri zen. Telebistara heldu arte batzuek dastatua zituzten haien platerak, baina orain denon esku daude errezeta magikoak, zapote eta soluziobide zoragarriak. Donostiarra Iruñean izan da aste honetan, 'Menu del dia' ('Eguneko menua') bere liburua aurkeztei. Martxa honetan Arzak eta besteren bat falta dira bakarrik Nafarroara etortzeko. Hala ere, denek goraiatu dituzte, egon direnean, nafarren produktuen kalitatea. Ez da gehiegi, baina guztiagorekin konformatzen dira asko.

Pilotari agoizkoak bere lehen-dabiziko txapelketa handia irabazi zuen igandeetan, lau t'erdikoan Errasti gipuzkoarra aisa menderatu ondoren. Askok Beloki eta bere arteko lehia nahi zuten, baina burlatarrak huts handia egin zuen bere norgehiagokan. Ongi etorriko zaion hutsa, halere, berak aitortu zuen bezala. Eugiren garaipena eta bere joko apartarekin, galdera nagusia da: bil zaletuen gogoan: Retegi sasoi onean izan balitz, Eugi hain aisa irabaziko zukeen? Ezetz uste dute askok, baina norgehiagoka ederra dugu hurrengo urteetarako.

HERRIZ BERRI

Lesaka

Olentzero herritarra

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUÑEA

Olentzeroa zonalde ezkutue-
netara zokoratua zegoenean ere,
Lesakako kaleetan barna pasea-
tzen zen urtero. Denbora franko
behar izan du ikazkinak hiribu-
rura joatera ausartzeko. Ausartu
denean, ordea, berehala lortu du
arrakasta, eta egun Lesakan ez
dira Iruñean adina lagun biltzen
bere ibilbidearen inguruan.

Hala ere, gehiago dira Lesaka-
ko karriketan barna paseatzen
diren Olentzeroak, Iruñeko ka-
rriketatik ibiltzen direnak baino.
Urtero, abenduaren 24an goizean
goiz hasita, herriko koadrilak ka-
lera ateratzen dira bakoitzak bere
Olentzeroa daramala. Kantari,
baserri urrutienetara ere ailega-
tzen dira biharamunek askari-
rako jaki eske. Koadrila osatzen
dutenek bezala, ongi jatea eta on-
gi edatea gustukoa du Lesakako
Olentzeroak. Bertako abestiak
dioenez, 'bart arratsean edan

Koadrila bako-
itzak ofizio ezberdi-
nak aurkezten ditu
Olentzeroarekin, eta
abesteko trebetasu-
na ere kontuan har-
tzen da hoberena
zein den erabakitze-
rakoan.

omen du hamar arruko zagia',
eta jateari dagokionean, lesaka-
rrek abesten duten kantan beste
inongo kantatan baino handiagoa
da ikazkinaren gose asegaitza:

'Olentzero guria! ezin degu
ase, / bakarrik jan dizkigu! hamar
zerri gazte! saiheski ta solomo!
tripazaiak aste, / Jesus jaio de-
lako! konsola zaitezte'.

Bazkalondoan, lauretan, Olen-
tzerorik onena hautatzen da koa-
drilek egin dituzten guztien artean.
Koadrila bakoitzak ofizio
ezberdinean aurkezten du Olen-
tzeroa, eta abesteko trebetasuna
ere kontutan hartzen da hoberena
zein den erabakitzerakoan. Hau-
taketa amaitzen denean, koadri-
lek jaki eske ibiltzeko azken au-
kera ez dute pasatzen uzten, eta
abesten eta dantzatzen azkenen-
go paseoa egin dute, herriko
kaleak jende eta algaraz gainezka
daudela. Zazpiak aldera Olen-
tzero irabazlea udaletxeko musi-
ka bandarekin batera kaleetan
barna abiatzen da. Ibilbide ho-
rrek, ordea, ez dauka amaiera
pozigarrik Olentzero panpina-
rentzat, lehen gertatzen zen mo-
duan erretzen ez badute ere.



Iruñea

Olentzero hiritarra

J. K. L. / IRUÑEA

Duela 35 urte Olentzeroa
lehendabiziko aldiz joan zen I-
ruñera San Antonio elkartaren
eskutik. Harrezkero, urtero,
abenduaren 24an elkartek Itur-
ralde y Suit kalean duen egoi-
tza izaten da, arratsaldeko zaz-
pietan ibilbidea hasteko prest.
Iñaki Alfaro elkarteko kideak
azaltzen duenez, «garai horiek ez
ziren egokiegia Olentzeroaren-
tzat, baina elkarteko lehen ki-
deek gogor egin zuten lan, eta
harrezkero urtero Olentzeroak
Iruñeko kaleak zeharkatu ahal
izan ditu».

35 urte hauetan San Antonioko
Olentzeroak bere nortasuna ga-
ratu du eta egun animaliak bes-
terik ez ditu onartzen hirian barna

egiten duen ibilbidean. «Traktore
eta halakorik ez dugu erabil-
tzen», dio Alfaro, «eta bai ordea
ardi, idi eta zaldi anitz. Herri-
koiagoa da horrela egitea». Ohi-
turari, funtsean, eutsiz, urtero be-
rrikuntzaren bat egiten saiatzen
dira San Antonio elkarteko ki-
deak. Aurten dantza talde batek,
fanfarre eta guzti, lehendabiziko
aldiz parte hartuko du ibilbidean.
«Modu horretan alaitasuna han-
diagoa izatea lortu nahi dugu, eta
aurten agian tobera batek joko du
bi txalaparten ordeztu». Tobera,
txalaparta, dantzari eta fanfa-
rrearekin batera, ohi denez, beste
gauza anitz izanen dira ibilbi-
dean: umeentzako gurdiak, zan-
pantzarra, jaiotza, idien gurdiak,
ardiak, eta nola ez ba, Olentzeroa.
Duela urte batzuk, Olentze-

roak hiriburuan lortu duen arra-
kasta dela eta, arazoak izan ziren
ikazkinaren aurrean zihoan ka-
lejirak sortzen zituen bultzade-
kin. Arazoa behin gaindituta,
Iñaki Alfaro, bere elkartaren
izenean, Olentzeroaren ibilbidea
guztiz ireki eta zabala dela azpi-
marratu nahi du. «San Antonio
elkartea denez antolatzailea,
jendeak ibilbide pribatua dela
pentsa dezake, eta ez da horrela
inondik inora. Guztiona da eta
guztiok parte hartzea gustatuko
litzaiguke egun antolatzaile ga-
renoi, antolaketan ere laguntza
asko eskertuko genukeen mo-
duan. Guk antolatzen duguna
agian ez da izanen Olentzerorik
onena, baina hiriaren erdialdean
egiten dena da, eta iruindar guz-
tiona».



SAN ADRIANgo Barazki
Kontserbatarako Zentroa zabal-
du zen atzo, asteazkena, Juan
Cruz Alli eta Aragoiko presiden-
tea bertan zirela, beste hainbeste
agintariren artean. Zentro honek,
Euskal Herrian ezezik beste lu-
rraldetarako ikerketak eta plan-
gintzak ere egingo ditu, eta ber-
tako nekazarien eta Nafarroako
Gobernuaren aspaldiko asmo eta
ametsa zen.

BADOZTAINGO Latimurriko
iturria berreraiki dute auzolanean
herriarrek. Badoztaindarrek
1913an eraiki zuten lehendabizi-
ko aldiz iturria. Orduetik herriko
bizitzaren elkargunea izan zen
iturria, baina duela urte batzuk
erortzekotan zegoela herriarrek
iturria kentzea erabaki zuten. Au-
zolanean orain eskuz berriz ere
eraikitzea lortu dute, eta egun bi
data aipatzen dira iturriaren pla-
kan, hala nola, 1913 eta 1992.
urteak.



BARAÑAINgo Udalak lan
kontratuak arautzen dituen foru
legeak sarritan hausteagatik sa-
latu du Nafarroako Gobernu-
ko Konptu Ganbarak. Langileen
behin-behineko kontratuaren le-
gehausterik latzenak egin ditu
Udalak. Udarentzako lanean
hiru urte baino gehiago eman on-
doren kontratu iraunkorra eduki-
tzeko eskubidea zeukaten langi-
leei behin-behineko kontratuak
berritu zaizkie, eta horretaz gain,
langile berriak hartzerakoan
Udalak ez ditu beharrezko auke-
ratze probak egin. Halaber, kon-
tratu berrietan beharrezkoak di-
ren idazkiak ez ditu bete behin
baino gehiagotan.

TUTERAN arrazakeria egon ba-
dagoela salatu du La Romani ijito
elkarteak. Elkarre honetako ki-
deek ijitoek begirada bortitzak
jasaten dituztela salatu dute, eta
lana eta etxebizitza bilatzeko era-
gozpen handiak topatzen dituz-
tela gaineratu dute. Aldi berean,
tuterarrek herrian gertatzen diren
arazo guztien erruduntzat jotzen
dituztela eta ijitoak lapur eta al-
ferrekin parekatzen dituztela sa-
latu dute.

BAZTANen joan den asteburuan
egin ziren hauteskundetan baz-
tandar askok ezin izan zuten boz-
katu biztanle zerrendan zeuden
akatsak zirela medio. Horretaz
gain, beste baztandar anitzek ez
zuten botorik eman hauteskun-
deak egun horretan egiten zirela
ez zekitelako.



Budogiako Ilaminako Ateak leizetik barna. 1981ean munduko bigarrena izan zen sakonerari zegokionez.

Pasa den igandean Julian Larunbe, Felix Aramendia eta Felix Ruiz de Arkaute espeleologoak omendu zituen Lizarrako Espeleologi Taldeak Basaurako kobazuloan, Euskal Herri osoko partaidetzarekin. Lurraren sustraie-

tara lehendabiziko bisitaldietatik 40 urte betetzen direnean, Larrako ikerkuntzak eta egindako lan oparoa dute askok gogoan, baina egun tokiz tokiko ikerketara mugatzen da gehienbat lana. Kirolera baino, arlo zientifikora.

Lurraren zainetara bisitaldia

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

Berrehun bat lagun bildu ziren pasa den igandean Basaurako kobazuloan, Itxako ibaiaren iturburuan, Nafarroako espeleologiakoak aztertu zuen lehendabizikoan, hain zuzen ere. Lizarrako Espeleologi Taldeko hiru partaide garrantzitsuak omendu zituzten bertan, eta bertan oroitari bat inauguratu eta aureskua dantzatu zuten. Julian Larunbe bihotzondokoak jota hil berria zen, eta Aramendia eta Ruiz de Arkaute lurraren sustraia bortxatzen ari zirela heriotzak eraman zituen, baina Lizarrako taldeak hirurak batu nahi izan zituen espeleologiaren 40 urte betetzen diren urte honetan. Felix Aramendia 1982ko abuztuaren 29an hil zen Itxako sifoian, eta Felix Ruiz de Arkaute, 1971ko uztailaren 24ean, San Martin Harriko leizean, hogeitau urte baino gehiago Nafarroako espeleologiaren munduan aritu ondoren.

ARKAUTE: Belgikar hau izan zen, izan ere, ezinbesteko erreferentzia sokazko eskalak, teknika oso xumeak eta batera tradi-

ziorik ez zegoenean. Espeleologia jende ausart eta 'eroaren' kirola eta dibertimendua zenean. Berarekin euskal espeleologiaren historia zati bat ezezik Europako bultzatzaile handienetakoa ere joan zen. Felix Belgikan



Urbasko Akuandi leizean.

jaio zen, aita tolosarra zuela. 1950-51ko neguan heldu zen Euskal Herrira, eta bertan, Oñatin hain zuzen ere, Gesaltzan hasi berriak ziren azterkuntzekin hasi zuen bere lotura orduan ume jaio berria zen espezializatearekin.

Berarekin ere teknika berriak ekarri zituen, eta 1951ko udan Gesaltzan ezezik, Arrikruz eta Jaturabeko kobazuloetan aritu zen. Orduan hasi ziren gure lurraren lehendabiziko urratsak hasten dira. Horrela, 1909an, Edouard Alfred Martelek Euskal Herriko lehendabiziko azterketa geologikoa egin zuen Zuberoako

1953an Nafarroara heldu zen, eta bera arduratu zen hemen sortu zen lehendabiziko taldearen presetakuntzaz. Principe de Viana Erakundearen dirulaguntzarekin, 1954etik aurrera Larrako ikerketek ekin zien taldeak. Lan guzti hain emaitzak, Felix beti bultzatzailea zelarik, erakundeak berak argitaratu zuen 'Larra, San Martingo leizea' izeneko lanean bildu zen.

Baina horretaz gain, Gipuzkoako Mantarrein, Bizkaiko Torca del Carlistan, Burgoseko Guareñan eta Alpeetako Bergerren aritu zen, besteak beste. Espeleologiari buruzko hainbat liburutan azpimarratu izan dute bere lana eta euskal espeleologiari eman zion bultzada.

Egun, taldearen lana bereziki tokiz tokiko azterketara mugatzen da. Horrela, Lokitz eta Urbasan kokatzen dira azterketa gehienak, eta kirolari baino azterketa eta ikerketek erreparratzen zaie gehienbat.

LARRA IKERTOKI NAGUSIA

Bera eta beste askoren lanari esker, egun, Lizarrako Espeleologi Taldeak Nafarroako hainbat tokitan utzi duen lana lurraldeko leize eta kobazuloak ezagutzeko esanguratsua izan da. Horien artean azpimarratzekoak dira Larra aldean egindakoak, bereziki Anielarra, Budogia eta Ukerdin. Hor daude, izan ere, Ilaminako Ateak eta San Martin Harriko leizeak, mundu osoan ezagutzen diren sakonetakoak.

Egun, taldearen lana bereziki tokiz tokiko azterketara mugatzen da. Horrela, Lokitz eta Urbasan kokatzen dira ikerketa gehienak, eta kirola arloari baino azterketa eta ikerketa arloei erreparratzen zaie gehienbat. Hori dela eta, taldeak berak ematen dituen ikastaroetan arreta berezia eskaintza zaio geologi ikasketek.

Hala ere, naturari lotuta dauden jarduerak guztietan gertatzen den bezalaxe, jendearen pilaketa eta kutsadurak ere astindu du lurraren barnealdea, taldeko partaide batek azaldu duenez. «Kontutan hartu behar da milaka urtetan zehar ez duela inork zapaldu inguru hauk, eta orain jende pila dabil gora eta behera».

Ilaminako Ateak, 1.348 metroko sakonera eta hamar kilometroko ibilbidea. Bi urte eskatu zituen, eta jende eta material kopuru handia. Hiru sifoiak, —40, 60 eta 100 metrokoak— bukaera eman zioten leize honen ikerketari.


A. B. / IRUNEA

Historia osoan zehar kobazuloak eta lurragi agerian uzten dituen leize eta zulo ororen mitologia anitza izan da. Mari, lamiak eta beste hainbat pertsonaia lurraren altzoan bizi izan dira beti, eta horrek mito eta sinismen askotarako tokia eman die euskaldunei. Kobazuloak, orduan, izakera babesle eta gaiztoa zuen, eta P. Thomas de Burgi historialariaren 'San Miguel de Excelsis' liburuan zentzu bikoitz honi buruz pasadizo franko adierazgarria agertzen da.

1765eko martxoaren 26an, Juan Astizko iratetarrak, gaixorik zegoela, Aralarko leize batera bota zuen bere burua. Udelfagoa izeneko parajearen, 'zeinen sakonera inork ez baitaki noraino heltzen den', zortzi egun eman zituen, eta saio franko egin ondoren, bizirik eta osasuntsu ateratu zuten. Saio horietako batean Jorge Landakoa jaitsi zuten sokaz loturik, baina argia falta zitzaionean, Burgiren liburuan azaltzen denez, 'oihuka hasi zen, ez baitzen ausartzen gehiago, izuak jota'. Juan Astizkoak ondoren adierazi zuenez, San Migel aingeruak mantendu zuen bizirik, 'lurra bigun eta hezearen laguntzaz'.

EPELEOLOGIA BAINO ARKEOLOGIA

XIX. mendearen bukaera kobazuloei buruz sinismen magikoen amaiera ere bada, eta espeleologia zientziaren lehendabiziko urratsak hasten dira. Horrela, 1909an, Edouard Alfred Martelek Euskal Herriko lehendabiziko azterketa geologikoa egin zuen Zuberoako



Lizarra inguruko Basauran. Bertan egin zen omenaldia igandean.

Olhadibia-Holzarteko arroiletan. Lehendabiziko urratsak ez dute zerikusi handirik ondoren etorriko zenarekin, baina nola edo hala, eta hori azpimarratzeko da, lurraldekako baino Euskal Herriko espeleologiaren historia egin beharra dago, zeharo lotuta egon baita bere ibilbidean, mendizalatasunaren ibilbidea batua egon den bezalaxe.

XIX. eta XX. mendeen bitartean, kobazuloen azterketa arlo arkeologiko eta paleontologikoari zegokion. 1871 eta 1877.

Urteak bitarte, Silvestre Umerezek eta Miguel Rodriguezek azterkuntzak egin zituzten Aizkiri (Oñati) kobazuloetan. Nafarroan, Juan Iturralde y Sui ikertzaileak Aralarko zenbait kobazulo ikertu zituen 1894etik aurrera. Bizkaian ere interesa pizten zen, eta Ipar Euskal Herrian Edouard Martelek ikerketa franko egin zituen 1901 eta 1910. urteak bitarte. Urte haietan ekin zion lanari Jo-

xemi Barandiaran, Telesforo Aranzadi eta Enrique Eguren hirukoteak, aurrerantzean izugarrizkoak izan ziren ikerketak. So-

rizko garrantzia izango zuten lanekin.

Hala ere, espeleologia, berez, Gerra Zibilaren ondorengo garaian sortu zen Euskal Herrian. 1945ean Aranzadi Zientzi Naturaren Elkarteak jaio zen Donostian, baina teknikak zein materialak oso urriak ziren artean. 1953an Felix Arkaute Nafarroan hasi zen eskala metalikoak erabiltzen, eta 1956an lehendabiziko kongresua egin zen Arantzazun. Ordurako talde garrantzitsuenak osatuak zeuden, eta Nafarroan Principe de Viana elkar-

tearen babesean biltzen zen talde aitzindaria.

1960 eta 1965. uretak bitarte Euskal Herriko espeleologiaren nafarrak eta arabarrak ziren nagusi. Larrako ikerketek ekin zieten, eta teknikan aurrerapauso handiak sumatzen hasi. Material hobekak lagun, ehun metrotik gorako leizeak ikertu ziren. Hala ere, artean espeditzioek muntaia handiak eskatzen zituzten eta eskalak ez ziren baztertzeko.

70eko hamarkadan goitik behera aldatu ziren teknikak. So-

Estilo kontuak

● Aspaldi gertatu zen; sotanei kriptak zaharrek usaina zerien, elkarren aiherrak ziren, eta hala ere, hala ere, hizkuntz araua asmatu ziguten. Debekuz eta salbuespenez josia, lasaistika luzez brodatua, amore emate itxura hartu nahi zuten mende-ku sibilanoz zipiritindua. Asmatu zutenek ere ezin bete dezaketen araua, guztizentzat balio duenari inorentzat balio ez duena, baina araua, azken finean. Urrezko araua.

Autogorrotaren azken argumentua —behin betikoa, erabakiorra— izan zitekeena tresna baliagarri bihurtu litekeela sinistu zutenek denbora pixka bat behar izan zuten hatxeak non paratu behar ziren ikaste-

ko. Behin Superzikuten Batzordeak nahikoa txukun jarri zituztela eritzi zionean, kontsigna berria zabaldu zen: kalitatea. Kalitatea, kalitatea, eta berriro kalitatea. Banatzeko lan eta influentzia gutxi geneukarik bide luzeak korritu ditugu kalitatea —Grial Saindu hori— lortzeko formula non aurkituko. Gure artean bi joera nabarmendu ziren berehala; bataren arabera, kalitatearen erdiesteko nahikoa zen formula egokia aurkitzea; kalitatea = Avogadroren Zenbakia bider lau ken eter molekula baten pisatzen duena zati Lurretik Ilargirainoko distantzia, esate batera; bestearen arabera, aldiz, kalitatea tribuko zaharren belarriari zuzenki eta ezinbestez atxekitutako dohai mi-

resgarria zen. Etsipena nagusi zuen batzuen zein bestearen artean. Formulazaleek laster ikusi zuten formulak berritzen zirela egunetik egunera, gero eta zailagoak zirela eta, gainera, ez zutela oso gutxitan baizik behar bezalakoa fruiturik ematen. Belarizaleek, ordea, honelako zerbait pentsatuko zuten: tribuko zaharra, ongi da; baina tribu asko, eta denak bat ez etorri, eta zahar bat tribuko, eta bider bi belarri. Lepo inguruan Erroldanek harria lotu eta geure burua errekaratzen gaudela, haro berri bat zabaldu zen: estilo-liburuena.

Esan nahi dut kalitatearen goxokia subjektibitateak bildua eman izan zaigula gehienetan; euskarri jakinik gabeko harria izan da, dirua, edo lana, edo ospea banatzen zuenaren matraka aspergarri eta atzemangaitza izan ez denean. En-

telekia, ia. Nire ongi etorria estilo-liburuei, kalitatearen kontzeptua objektiboago bihurtzen —hau posible den neurrian— lagunduko dutela ustean.

Baina ez zait ahazten aho biko ezpata izan litekeela. Eta bigarren ahoa hauxe da: areago oztopatzea berez nahikoa bihurtu daukagun jarduna. Hau da, zerbait idazteko garaian, hasteko beldur psikologiko batzua gaiztatu behar izaten dira; zenbat jende haserretuko zaidan, zenbatek usteko duen txoropito hutsa naizela, eta gisakoak. Horiek alde batera utzirik, gero arazo teknikoak etortzen dira; gramatikari zorrotzenak oneritza emateko moduan idatzitako behar da eta. Orain, hori guzti hori gutxi balitz, adi ibili beharko dugu zenbat estilo-liburuk esandakoaren aurka atentatzen dugun zerbait idazteko asmo zoroa gogora etortzen zaigunear. Adibidez, hemengo artikulua honetan, orain arte idatzitakoan lau aldiz —mea culpa— hautsi dut Euskaltzaindiaren agindua, bi aldiz —mea culpa— Egunkariaren estilo-liburuarena, hiru aldiz —mea culpa— inoiz atera ez arren estilo-liburu behintzat egin duen beste egunkari horrena, sei aldiz —mea culpa— telebistarenarena eta hamazazpi-
ren bat irratienarena.

Hori, Euskerazaintzakoek mespretxatuko nindutela, kazetaritza-tradizioirik sendoen 'Euskalduna'-k eta 'Herria'-k sortu dutela uste dutenek gutxiesten dutela nire estilo probe hau, Alutbek ez ninduela euskalduntzat hartuko, kultur-kolonizazio maila gordinak gaina hartu zidala aspaldi eta erdaraz pentsatzen dudala kontuan hartu gabe, irakurtzen erdizka baino ez dakitenek ez dutela behar bezala ulertzen esaten ez hasteko. Hau guzti hau estilo-liburu baina hagitzez inportanteagoa dela liburu-estiloa ez aipatzeagatik.

Azkenerako blokeatu egiten zara, halako batean, kalean, lagunak harrapatu eta zerbait idazteko eskatzen dizun arte. Eta zuk, orduan: jakina! Euskaraz idaztea baino kilikagarrigorik!



Jon Alonso Itzultzailea

Gazteendako Zokoa

Eleu -txonta

Montifringilla nivalis
Txolarrea baino handiagoa
Beti urria
Itxura txuriska




Mendi puntetan

Mendi garaiak, zuhaitzen mailatik gora, oso baldintza gogorrek dauzka edozein espezierendako, eta soilik oso espezializatuak daudenak bizi daitezke bertan. Batzuk udan agertzen dira, baina beste zenbaitzuk, gutxienez, urte osoan zehar baldintza txarran jasateko gai dira. Horietariko bat da elur-txonta.

Txolarrea baino handiagoa, burua urdinxka eta sorbalda nabarra dauka. Isatsa beltza da erdialdean, eta txuria ertzetan. Senidearen ohitura antzekoak ditu, baina elikadura, jakina, desberdina da. Elur-txontak soilik belar txikiak eta insektuak jaten ditu.

Errute garaian talde txikitan bizi da, bikoteetan, eta gainontzekoa sail txikitan. Kabi handia paratzen du, goroldio, belar eta txotxamarrekin, eta barruan lumak eta beste jartzen ditu.

Europako hegoaldean, Kantauriko mendizerran, Piriniotan, Alpeetan eta Apeninosetan bizi da, ia beti 2.000 metrotatik gora, eta beti nahiko urri. Nafarroan soilik Orin, Otxogorrigaine eta Larran bizi da, baina Ezkaurren, kasu, ez da antzeman.



Gurasoak eta seme alabak

NURIA BERT

Gizarte honetan arazo larriak daude, eta horren artean seme-alabak eta gurasoen arteko harreman txarrak sarturik daude. Gainera, hemendik gauza gehiago sortzen dira: delinkuentzia, drogak, alkohola, tratu txarrak, bakardadea, eta abar...

Etxe barneko giroa kasu askotan txarra baino txarragoa da: oihuak, istiluak eta abar. Etxe normal batean, hau da, garrantzi gabeko istiluak dauden etxetan, arrazoi hauengatik izanen dira: guraso eta seme-alaben arteko desadostasunak, adinaren aldea... Pentsakera ere oso garrantzitsua da, eta hortik datoz adostasunak eta desadostasunak. Gure gurasoak beste girotan —ezberdinean— hazi dira, eta pentsakera ere atzeratuagoa eta desberdina dute. Bere heziketa, beraz, gurea baino askoz ezberdinagoa da. Lehenago hasten dira lan egiten eta gutxi-

go ikasten dute.

Gaur egun ongi edo normala ikusten duten gauza gehienak lehen gaizki ikusiak zeuden. Minigonak, emaztegaiaren eskutik heldzea, bederatzietan etxera ailegatzea, eta gauza gehiago. Hau oso garrantzitsua da. Ez dirudi, baina hortik datoz arazo asko. Gure gurasoak beste gizarte batean hazi direnez, ezberdinak dira. Ez bakarrik haiek, baizik eta bere pentsamoldeak ere. Batzutan oso gogorak direlako edo beren haurtzaroan ez dutelako amodio asko izan, alkohola eta drogetatik ihes egiteko.

Badaude ere kasu gehienetan bere arazoetatik ateratzeko alkohola edaten dutenak, eta gero etxera ailegatzen dira, eta emazteak edo haurrak jo, erre, eta abar, egiten dutenak. Orduan umeak etxetik joaten dira, eta honek ondorio batera eramaten dute: bakardadera.

Arazo hauetatik ihes egitea-

gatik denbora gehiena kalean igarotzen dute, eta beste jendearen eraginez gauza txarrak egiten dituzte edo lehen aipatu ditugun gauza txarretan aritzen dira. Umeek, gurasoek bezalaxe, ez dute beren partetik asko jartzen egoera hau konpontzeko. Gehienetan ezin da ezer egin.

Gainera mundu hau etsai, guda eta gorrotoz beterik dago. Portara hauek, lehen esan dugun bezala, delinkuentzia dakartzate, eta honek gehien sortarazten duena eragin txarrak eta bakardadea da.

Aholkuak emateko inor ez denez, zer dagoen ongi eta zer gaizki esateko, ahal duten moduan aurrera ateratzen dira, modu txarrean. Arazo hau ez dut uste inork bakarrik konponduko duenik, baina nik esperentza daukat egunen batean denen artean, gure indar guztiakin, hau konpontzea. Espero dut egun hori laister ailegatzea eta nik bizirik irautea ezagutzeko.



BASAJAUN

Gaur ikusiko dugu nola ez diogun behar den garrantzia ematen gure elikadurari. Logikoa da, jatekoa gogoa galdu nahi ez badugu, produkto baten osagaien aurrean begiak itxia. Baina ez da zuzena gure janariei buruz kontrolik ez izatea, horrek baldintzatuko baititu gure osasuna, fisikoa zein gogokoa.

Adituek ongi dakiten bezala, gure gorputzak ez ezik gure buruak ere jasaten du elikadura txarra, eta zenbait produktuk gogoeza, umore txarra eta nerbioak eragiten dituzte, behar den garrantzia ez emateagatik.

Izozkia jaten duzun aldiro gorputzan zer sartzen duzun jakin nahiko al zenuke? Izuak astinduko zintuzke gailetak, txokoloteak, pizzak, saltsak eta abarren osagaien artean klabetan agertzen direnen sekretuaren berri izango bazenu? Osagai hauek batukorrak dute izena, eta beren helburua produktua 'apaintzea' da, kontsumoan eragina izango duten edozeinen aurrean: usaina, kolorea, zaporea...

Batzuk naturalak dira, baina beste batzuen arriskua frogatuta dago, gaizki eta soberan erabiliz gero. Batukor hauek koloragailuak, kontserbatzaileak, finkatzaileak, lodierazgailuak, gastzailak, azidogailuak, zaporatzailak, eta beste batzuk dira. Zerrenda luzea, ezta? Eta zenbat hartuko dugu produktu bakoitzean? Ez ote digute ziria sartuko?

Benetako arazoa ez da zenbat sartzen diguten, proportzioa baizik. Hurrengo astean batukor horri buruz hitz egingo dugu, zer jaten dugun jakin ahal izateko, eta batzuk baztertze.


Jenero Xumekoak

Joana joan da.

Gu ere zahartu egingo gara, eta txoriak kabletan lez, pretilatan jarriko gara, obra publikoak nola burutzen diren ikustera. Eta norbaitek kontatuko du lehendabiziko iloba ikustean emakume batek esan zuela amatxi izatearen alde txarrena aitatzirekin oheratu beharra dela.

JEREMIAS ERRO

KAZKARROAN

HITZ
GURUTZATUAK

EZKER-ESKUIN: 1.- Petatxu. 2.- Lehen eta azkenekoa. Ipar Euskal Herriko eskualdea. 3.- Futboleko iharduteko ezinbestekoa. Haur hizkeran, musu. 4.- Soro. Naiz. 5.- Zakur. Kontsonante bikoitza. 6.- Moduak. Azkar. 7.- Musika nota. Ardura. 8.- Joan den urtekoa. Bokale bikoitza. 9.- Aieruka.

GOITI-K-BEHERA: 1.- Aita. Gaisa. 2.- Pluralean, barazki mota. 3.- Bostehun. Bizlaieraz, lore. Herri hizkeran, zer. 4.- (Infi.) Agortu. Kolore militarra. 5.- Baieztatzeko. Edari alkoholduna. 6.- Aranondoaren fruitu. Lege. 7.- Errepikatuz, gorotza. Kolore ilun. Potasioa. 8.- Arima. 9.- Alderantziz eta Gipuzkoan, zain. Nauka.

N-57

Zaharrak berri

Subiak hil eta subekumiak bizi.

Guraso gaiztoen umeak gurasoen antzekoak.

Arakil

—Kontatuko dinat ezagutzen dudana txiste bat?

—Ez, kontaidak eza- gutzen ez duan bat.

Bizi Bizian

Zapateria kaleko 50. zenbakira hurbilduz gero, Girior markesen jauregia izan zena aldamioz josita ikus dezakegu orain. Euzko Alderdi Jeltzaleak, 56 urteko etenaren ostean, bere jatorrizko egoitza berreskuratu du, Iruñeko bihotzean. 1936. urtean falangisten esku geratu zen etxebizitza zeharo hondatua aurkitu dute jeltzaleek eta berritze lanek uste baino gehiago iraun dute. Dena den, heldu den udaberrirako Napar Buru Batzarraren egoitza eta batzokia izango dena prest edukiko dutelakoan daude. Jauregia 1756. urtean eraiki zen, Juan Navarro Ameriketara aberastuta sorterrira itzuli zen jauntxoaren aginduz, baina XX. mendeko historiaren ispilu bihurtu da. Nazionalismoaren hastapenak ezagutu zituen mende hasieran, Espainiako Gerra Zibilak ekarriko zuen altxamenduak lehen urrats horiek bortizki galerazi zituen arte, eta badirudi mendea ikurrinaren koloreekin bukatuko duela, EAJri kostatzen zaiona kostata.

Jauregi itxurako historia puska

A. UNANUE / IRUÑEA

Zapateria kaleko egoitzaa 1914. urtean hartu zuen bere gain Euzko Alderdi Jeltzaleak, aurreneko egoitza San Jose plazakoa izan baitzen. Carlos Claveriak gogoratzen duenez, urtarilaren 6an egin zuten zabaltze ekitaldia. San Fermin kaperan meza ospatu ondoren, Francisco Guillen San Nikolaseko apezak bedeinkazio guztiak eman zizkio Euzko Etxea deituko zutenari.

Bazkarian 137 lagun bildu ziren eta bazkalosteko hitzaldia Arturo Campion berak eman zuen. Nafarroako Korteen jatorri eta bilakaeraz mintzatu zen eta, Claveriak dioenez, «inguruan bildutako abertzale guztiak hun- kitu zituen».

Hurrengo urteetan Iruñeko euskaltzaileen topagune bihurtu zen Girior markesen jauregia. Bertan euskara irakasten zen eta Nafarroaren historiari buruzko ikastaroak antolatu zituzten. Txistua, dantzak eta antzerkia ere ez ziren falta, mendigoizaleek bultzatutako mendi irteerak ahaztu gabe.

LA VOZ DE NAVARRA

Napar Buru Batzarrak lehenengo solairuan egiten zitu- en batzarrak eta eguneroko lanak. Sotoan, berriz, 'La voz de Navarra' egunkariaren tailerrak zeuden. Egunkaria 1923. urtean sortu zuten Irujo, Garmendia, Blanco eta Unzuk, garai hartako 400.000 pezetako kapitalarekin. Hasieran 3.500 ale kalera- tzen zituen eta, bizitza motza izan arren, bi aldiz bahu zuen. Zu- zendari lanak Eladio Esparza, Jesus Etaio, Miguel Esparza, Je- sus Aranzadi eta Jose Agerrek

bete zituzten.


'La voz de Navarra' indarrez isilarazi zuten falangistek. 1936.eko uztailaren 21ean sartu ziren Zapateria kaleko egoitza eta Agerre, egunkariaren azken zuzendaria espetxeratu egin zu- ten. Tailerrak 'Arriba España' Falangeak sortutako egunkari katearen lehena egiteko erabili zituzten gerra irabazleek.

1936Z GEROZTIK GAINBEHERA

Orduraz gero gain- behera besterik ez zuen ezagutu Euzko Etxea izan zenak. Areto nagusia Javier Ziga eta Enrique Zubiri pintoreen lanekin apain- dua zegoen, baina gehienak de- sagertu egin ziren. Claveriak go- goratzen duenez, Zigaren 'Mikel Gurea' eta 'Hamabi agureen ba- tzarrea' koadroak zeuzkaten eta Zubiriren 'Artzaina' eta 'Sega- laria', azken hau galduta gaur egun.

Jeltzaleak Iruñeko Udalari etxebizitza berriro erosi eta aurrenekoz sartu zirenean, Jose Antonio Primo de Rivera eta Falan- gearen sinbolo eta aztarna ugari aurkitu zituzten. EAJk sotoa, beheko solairua eta lehenengoa bakarrik berreskuratu ditu. Jau-

Jeltzaleek etxebi- zitza berriro erosi eta aurrenekoz sartu zi- renean, Jose Anto- nio Primo de Rivera eta Falangeren sin- bolo ugari aurkitu zi- tuzten.



EAJko burukideak Zapateria kaleko Jauregiaren balkoian. JOXE LACALLE

regiaren goikaldea, berriz, in- mobiliaria batek hartu ditu. Jose Antonio Urbiola NBBko buruak azaldu duenez, batzokiaren jato- rrizko banaketa errespetatu nahi dute eta lehenengo solairuan NBBko agintarien bulegoak ja- rriko dituzte. Areto nagusia, 107 metro karratukoa, batzarrak egi- teko erabiliko dute eta agian ar- tista gazteen erakusketak anto- latzeko ere. Beheko solairuan Iruña Buru Batzarra egongo da eta sotoan ez dute baztertzen el- karte egitea. Urbiolak dioenez, «Zapateria kaleko batzokia Na- farroako abertzale guztien topa- gune izan dadin nahi dugu». Leku faltagatik ez da geratuko behin- tzat.



Falangistek utzitako aztarnak.



Euzko Alderdi Jeltzaleak San Jose plazan eduki zuen bere lehen egoitza, 1914ean Zapateria kalera aldatu arte.

VALENTIN ARTETA

Joxelu Retegi

.....Herri Kirol Federazioako burua

«Herri kirola ez da bakarrik aizkora»

A. BARANDIARAN / ARRAIOZ

EGUNKARIA.— Zu, nolabait esateko, heldu berria zara herri kirolera. Nola izan da zure lotura kirola eta federazioarekin?

JOXELU RETEGI.— Urte pare bat edo egin du ni hemen nabilela. Arraiozen hasi nintzen, hemen egin genuen herri kirol taldetxoarekin, eta haiekin, buru, beti norbaitek ibili behar du eta. Orain, hauteskundeetan, lan talde berri bat osatu zen, animatu ninduten, eta aurrera. Baina, bai, hasi berria herri kirolean.

EGUNKARIA.— Herri Kirolerako afizioa, nolanahi ere, aurretik izango zenuen.

RETEGI.— Bai, herri kirol afizioa, bai, betitikan. Baserrian jaioz gero... Beti kirolean, baina herri kirolarekin orain, duela bi urte. Lehendabiziz sokatiran, eta orain trontzan aritzen naiz beste batekin, bigarren mailako txapelketan hartzeko asmoan.

EGUNKARIA.— Hautagai bakarra izan zara hauteskundeetan. Zer gertatu da, inor ez dela animatu, zu bakarrik aurkeztu zinen?

RETEGI.— Lan egin behar da, eta badakizu dirurik ez dagoela. Hortaz horrek, noski, jendea atzera botatzen du. Ez da inor azaldu, baina ez dakit zergatik. Niri gustatzen zaizkit horrelako gauzak, herri kirola eta herrian zerbait egitea. Ni animatu baino, animatu egin naute. Norbaitek atera behar zuen, eta talde polita bildu ginen.

EGUNKARIA.— Nafarroako Herri Kirol Federazioak hiru urte-tako ibilbidea daukala esan daiteke, orduan lortu baitira benetako gorakada eta onespina. Urte hauetan, baina, beti ezkutuan ibili da eztabaida oinarritzko kirola eta profesionalen artean. Zertan dago eztabaida hori?

RETEGI.— Eztabaida hori beti izan da. Herri kirolean badaude goi mailakoak eta besteak, behean ari garenak, eta eztabaida konprenitzekoa da. Goi mailako kirolari batek gastua badauka eta kobratu behar du, baina guk ez dugu horrelako arazorik nahi. Gure asmoa da txapelketa guztiak antolatzea eta haiei ere behar den laguntza guztia eman. Ez dago arazo handirik.

EGUNKARIA.— Eta harremanak onak dira haiekin?

RETEGI.— Bai, haiek ez dira batere sartzen. Txapelketak antolatzen ditugu, eta haiendako dira. Hala ere, ez dago harreman arras beroa, baina, tira, batzuekin gehiago, besteekin gutxiago.

EGUNKARIA.— Gai honi buruz federazioan iritzi bateratua dago?

RETEGI.— Goi mailako kirolari batzuek ez dute ikusten herri kirola ez dela aizkora bakarrik, aunitz gauza direla, haurrekin hasi behar dela, eskoletan sartu behar dela. Hori da guk pentsatzen duguna, eta beti izan den dira batzuk ezetz, herri kirola dela haiek egiten dutena. Izan ere, urte aunitzez, haiek eutsi diote herri kirolari goian, eta haiek ez baziren, agian ez zen herri kirolkan.

EGUNKARIA.— Gai honi buruz federazioan iritzi bateratua dago?

RETEGI.— Goi mailako kirolari batzuek ez dute ikusten herri kirola ez dela aizkora bakarrik, aunitz gauza direla, haurrekin hasi behar dela, eskoletan sartu behar dela. Hori da guk pentsatzen duguna, eta beti izan den dira batzuk ezetz, herri kirola dela haiek egiten dutena. Izan ere, urte aunitzez, haiek eutsi diote herri kirolari goian, eta haiek ez baziren, agian ez zen herri kirolkan.

EGUNKARIA.— Nafarroako Herri Kirol Federazioak hiru urte-tako ibilbidea daukala esan daiteke, orduan lortu baitira benetako gorakada eta onespina. Urte hauetan, baina, beti ezkutuan ibili da eztabaida oinarritzko kirola eta profesionalen artean. Zertan dago eztabaida hori?

EGUNKARIA.— Zu, nolabait esateko, heldu berria zara herri kirolera. Nola izan da zure lotura kirola eta federazioarekin?

JOXELU RETEGI.— Urte pare bat edo egin du ni hemen nabilela. Arraiozen hasi nintzen, hemen egin genuen herri kirol taldetxoarekin, eta haiekin, buru, beti norbaitek ibili behar du eta. Orain, hauteskundeetan, lan talde berri bat osatu zen, animatu ninduten, eta aurrera. Baina, bai, hasi berria herri kirolean.

EGUNKARIA.— Herri Kirolerako afizioa, nolanahi ere, aurretik izango zenuen.

RETEGI.— Bai, herri kirol afizioa, bai, betitikan. Baserrian jaioz gero... Beti kirolean, baina herri kirolarekin orain, duela bi urte. Lehendabiziz sokatiran, eta orain trontzan aritzen naiz beste batekin, bigarren mailako txapelketan hartzeko asmoan.

EGUNKARIA.— Hautagai bakarra izan zara hauteskundeetan. Zer gertatu da, inor ez dela animatu, zu bakarrik aurkeztu zinen?

RETEGI.— Lan egin behar da, eta badakizu dirurik ez dagoela. Hortaz horrek, noski, jendea atzera botatzen du. Ez da inor azaldu, baina ez dakit zergatik. Niri gustatzen zaizkit horrelako gauzak, herri kirola eta herrian zerbait egitea. Ni animatu baino, animatu egin naute. Norbaitek atera behar zuen, eta talde polita bildu ginen.

EGUNKARIA.— Nafarroako Herri Kirol Federazioak hiru urte-tako ibilbidea daukala esan daiteke, orduan lortu baitira benetako gorakada eta onespina. Urte hauetan, baina, beti ezkutuan ibili da eztabaida oinarritzko kirola eta profesionalen artean. Zertan dago eztabaida hori?

darama, berak esaten duen bezala, «baserrian jaioa izanda...». Gorakada etengabea daraman federazioaren ardura hartuko du hemendik aitzinera, bada, Joxelu Retegik, eta helburua orain arte egindakoari eustea izan da.



Sokatiran hasieran, egun trontzarekin aritzen da Joxelu. A. BARANDIARAN

EGUNKARIA.— Hiru urte hauetan bizi zareten gorakada izugarriak sortu al dizkizue arazoak, horrelako aldaketei egokitzeko?

RETEGI.— Ez, ongi eraman da. Batez ere, herriz herri antolatu dira txapelketa guztiak, eta herri kirola bultzatuz. Batez ere horrek eragin du mugimendu handia. Dударik ez da, behar da antolaketa handia. Ni arront gutxi

ibili naiz orain arte, baina hor talde bat eta lehengo presidentea ibili dira, eta egin dute lan handia, ezkutuko lana. Orain ikusten da fruitu badela.

EGUNKARIA.— Presidentea aukeratu zintuzten bileraren aurrean, hurrengo lau urtetarako federazioaren helburuak zehaztu zenituen. Asmoa orain arte egin denari jarraitzea da, edo planteatzen du?

Orain Samaranchek esan berri du herri kirola, nazio bakoitzeko herri kirolekin batera, hurrengo Olinpiadetara eraman nahi duela, eta hori oso polita izan da.

mendu berria egin behar duzue?

RETEGI.— Helburu nagusia da jarraitu orain arte egin denarekin. Herri kirola Nafarroa osora zabaltzeko nahi dugu, eskoletan sartu, prestakuntza fisikoan sartu. Iruñerrian, adibidez, sartzen ari da, eta Berriozarren, Txantrean, Donibanen, Etxaurin, badaude taldeak.

EGUNKARIA.— Bartzelonako Olinpiadetan zazpi lurraldeen artean urtero egiten den lehiaketa burutu zenuten. Zer moduzko esperientzia izan zen?

RETEGI.— Esperientzia polita, du-darik gabe. Hamabost egunetan izan ziren herri kirola, egunero, eta gurekin batera, hor zeuden kanariarrak, asturiarrak. Orain Samaranchek esan du herri kirola, nazio bakoitzeko herri kirolekin batera hurrengo Olinpiadetara eraman nahi duela, eta hori oso polita izan da.

EGUNKARIA.— Gainera, zuen helburuen artean herri kirol beste federazioekin harremanak estutzeko asmoa dago.

RETEGI.— Orain sortu berria da Espainian horrelako federazio bat, bertako kirolak batzeko. Kanariarrekin badago harreman ona, eta Euskal Herrikoarekin ere, nahiz eta behar bezain ona ez izan.

NOSKI JATOR

ZVLDI ERDA

